

BIZITZA BERRERA KITZEKO AHOTSAK



Unitate didaktikoa



**ELLACURIA
FUNDAZIOA**
GIZARTE GUNEA
CENTRO SOCIAL

Honako hauek finantzatuta:



BIZITZA BERRERAKITZEKO AHOTSAK

**Unitate
didaktikoa**



Ignacio Ellacuría gizarte-fundazioa
Arrupe Etxea - Aita Lojendio kalea 2
48008 Bilbo, Bizkaia
+34 944 465 992
info@fundacionellacuria.org
www.fundacionellacuria.org



Diseinua eta maketazioa:
Sergio Albarrán

Argitaratzea:
2025eko maiatza

Ikerketa hau egiteko finantzaketa Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna
Sustatzeko Sailak eman zuen



Argitalpen hau lizentzia honen pean egin da: Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorriGabe 4.0
Nazioartekoa.



Edukiak:



1. Sarrera



2. Helburu orokorrak



3. Ikus-entzunezkoak ikusten hasi aurretik



4. Proposamen metodologikoa eta kontakizunen fitxak



5. Eranskina: fitxak galdera



01. Sarrera

“Bizitza berreraikitze ahotsak” (BBA) proiektuan, idatzizko kontakizunen eta ikus-entzunezkoen bitartez, Somaliako, Ukrainako, Siriako eta Aljeriako 5 emakumeren historietara zuzenean hurbiltzeko bide bat eskaintzen zaigu. Hizkuntza, norberaren bizitzaren gainesposizioa formatu presentzian, familia eta lana uztartzea eta bestelako eragozpenak eragozpen, “BBA” proiektuan emakume horien bizitzaren alderdi bat jasotzen da, emakume horiek indar handiz adierazi baitute entzunak izateko interesa dutela eta, horrela, bizi duten errealitatean inplikatu ahal izango gaituzte; izan ere, harrerako gizarte garen aldetik, haien errealitatea geure historiaren parte ere bai baita. Kontakizun laburrak dira, eta, horien bitartez, euren esperientziekin, gaitasunekin eta aldaketa-nahiekin interpetlatzen gaituzte.

Emakumeen esperientziak jasotzen dituzte, bizitzaren eta itxaropenaren lekuko izanik. Egunerokotasunetik zauriak sendatzen dituzten bizitzaren ehuleak, beren burua berreraikitzen ahalegintzen dira, baita euren familia- eta komunitate-bizitza ere euskal gizartean. Entzunak izateak lagundu egiten die sendatzeko eta erreparatzeko prozesuetan, baita sendatze pertsonal eta kolektiboko prozesuetan ere, eta, aldi berean, gizarte gisa iragazkirik gabe entzun behar ditugun narratibak sortzeko aukera ematen du.

Haien testigantzak ekarpen baliotsua dira kulturarteko gizarte baten memoria kolektiboa eraikitzeko, gaur egun inspiratzen gaituzten askotariko emakumeen memoria jaso behar baitu.

Bizirik atera diren emakumeen testigantzak lantzeko moduagatik eta edukiagatik, hartzaileak askotarikoak izan daitezke. Hartzaile potentzialak izan daitezke ikasleak –Bigarren Hezkuntzakoekin hasi eta goi-mailako ikasketetako, ikasketa teknikoetako eta unibertsitateko ikasleekin bukatu–, emakumeen elkarteak, eta herritarrak, oro har.

Gida honetan gomendio metodologikoak bildu ditugu, emakumeen kontakizunen aurkezpen publikoetan eta horien ebaluazioetan lortutako esperientzian oinarrituta. Ellacuria Fundazioa, bigarren hezkuntzako, batxilergoko eta unibertsitateko ikastetxeetan egiten dugun sentsibilizazio-esperientzia.

Horiek entzutea funtsezkoa da bizi duten errealitateaz jabetzeko, askotariko gizartearen errealitateari aurrez aurre begiratzeko eta guztion artean eraikitzen dugun gizarteaz arduratzeko.

Eskerrik asko haien ahotsak zabaltzeagatik eta hausnarketarako guneak sortzeagatik; ea gune horiei esker gizarte abegikor bat eraikitze mobilizatzen garen.



02. Helburu orokorrak

- Bakean bizitzeko eskubideari, nazioarteko babesari eta aukera-berdintasunari buruz **gogoeta egitea**, gerratik eta beste indarkeria batzuetatik bizirik atera diren emakumeen ikuspegitik begiratuta.
- Osatzen dugun gizarte askotarikoa berreraikitze **konpromisoa** hartzea, abegikortasuna eta harrera izanik mobilizatzen gaituzten printzipio etikoak.
- Protagonista diren emakumeei gizarte-aldaketakarako dituzten gaitasunak eta, herritar eta sentsibilizazio-eragile diren aldetik, egiten duten **ekarpena** aitortzea.





03. Jardueraren aurretik kontuan hartu beharrekoak

Emakume protagonisten bizitza berreraikitzekeo testigantza bakoitza hain da bizia, ezen aurretiaz lanketa bat egitea komeni baita, giro egokia sortzeko, haien historiekin banalizaziorik eta/edo kontsumismorik egon ez dadin. Oso garrantzitsua da hori, batik bat, kontuan hartzen badugu bi-deoen kontsumoa gero eta handiagoa dela pantailadun gailuen bitartez, eta edozein motatako edukiak kontsumitzen direla, edozein lekutan eta inolako irizpiderik gabe, kontsumitzen ditugun edukiei buruz hausnartzeko ere denborarik gabe. Beraz, honako elementu hauek izatea gomendatzen dugu:

a. **Espazio egokia eta baliabide tekniko aproposak:** Areto bat, pantaila bat eta Interneteko konexioa duen ordenagailu bat, proiektzioa egiteko.

b. Irudien ezaugarri kromatikoak direla eta, proiektzio-gela **ilun samar egotea** komeni da.

c. Minutu batzuk hartzea giro **lasaia, errespetuzkoa eta enpatiazkoa** sortzeko.

d. **Ba al zenekien?** galdera/datua aipatzea gaiaren sarrera gisa, eta emakume protagonisten bizipenak entzun edo irakurri ahal izateko aukera, ikuspegi global batetik ezinezkoa izango bailitzateke bestela.

Ba al zenekien?

Hiru segundoan behin, errefuxiatu batek etxetik ihes egin behar izaten du munduan¹. [ACNUR](https://www.es.amnesty.org/en-que-estamos/blog/historia/articulo/diez-datos-que-necesitas-saber-sobre-refugio/) erakundearen datuen arabera, 2024ko ekainaren amaieran, munduan 122,6 milioi lagun izan dira etxetik alde egitera behartuak. Horietatik gutzietatik, 43,7 milioi inguru errefuxiatuak ziren. Horien erdiak, gutxi gorabehera, emakumeak eta neskak² dira. Gaitasun asko dituzten pertsonak dira, berritzaileak eta borrokalariak, eta familia-estrategia bat izan ohi dute atzean. Euren historiaren uneren batean laguntza behar izaten dute, baina aurrera ateratzea lortzen dute, ahalegin eta esfortzu handiak eginda.

¹ <https://www.es.amnesty.org/en-que-estamos/blog/historia/articulo/diez-datos-que-necesitas-saber-sobre-refugio/>

² <https://mujeresrefugiadas.accem.es/panorama-mujeres-refugiadas/#:~:text=En%20el%20mundo%20hay%20actualmente,ellas%20son%20mujeres%20y%20ni%C3%B1as.>

Unitate didaktikoa

[SJM erakundearen txosten baten arabera](#), 2024ko ekainean, Espainiako biztanleriari dagokionez, atzerrian jaiotakoak dira biztanleen % 18,18; hau da, aniztasun handia dago, bost lagunetik ia bat herrialde hauetakoren batean –nagusi-ki– sortuak baitira: Maroko, Kolonbia, Venezuela, Errumania, Ekuador, Argentina, Peru, Erresuma Batua, Kuba, Frantzia, Ukraina, Honduras, Dominikar Errepublika, Txina, Bolivia, Brasil, Alemania, Italia, Paraguai eta Errusia.

[CEARen](#) arabera, Espainiako asilo-eskatzailen ia % 70 Venezuelakoak, Kolonbiakoak eta Perukoak dira. Hala ere, Malitik eta Senegaldik gero eta jende gehiago iristen ari da babes-bila, Kanariar Uharteetako ibilbide arriskutsua eginda. Zoritarrez, agintariek asilo-eskaeren % 47 ukatzen dituzte oraindik, eta % 14 baino ez dituzte onartu; aldiz, eskaeren % 39ri –gehientsuenak Venezuelakoak ziren– arrazoi humanitarioengatik eman zitzaion baimena, berme gutxiago ematen duten arren.

Migrazioen errealitatearen aurrean, gizarteak hainbat modutan erantzun dezake: desberdina den horrekiko beldur eta gaitzespenaren ondorioz sortzen den nolabaiteko etsaitasunetik, arrazakeriatik eta xenofobiatik. Edo abegikortasunetik, harrera sustatzen duen Giza Eskubideen ikuspegitik, topaketa ospatzen du eta elkartasunaren eta inklusioaren kultura sustatzen ditu. Horregatik, etsaitasuna alde batera utzi, eta abegikortasunaren alde konprometitzera garamatza gure posizionamenduak.

Abegikortasunaren kultura eraikitzea:

Abegikortasunaz mintzo garelarik, giza mugikortasuneko testuinguruetan dauden pertsonen bizitza duina ematearekin lotutako prozesu guztiez ari gara: sorterrian berean, bidean eta, gerora, helmugako lekuetan egiten zaien harreran. Beste era batera esanda, behartutako lekualdatze horiek eragiten dituzten arazoiez ari gara, Europara iristeko eta heltzeko prozesuan pertsonen eskubideak babesteaz eta gure gizartean abegikortasunaren kultura sustatzeaz.

Abegikortasunak errealitate berri bat ikusarazten digu; izan ere, aniztasunaren aberastasunarekin batera, egoera bidegabe eta arbitrarioak agertzen baitizkigu. Testuinguru horrek abegikortasunaren kultura indartzera bultzatzen gaitu, segurtasunez migratzeko eskubidea defendatuko duen kultura, beharrezanean dagoenari harrera egin eta laguntza emango diona, eta elkarrekin bizi garen pertsona guztion kultur ekarpenekin gizarte berriua ekarriko duena. Ikuspegi horri jarraikiz, abegikortasuna definituko dugu (ausartu egingo gara!), jarraian aipatuko ditugun eta [Hospitalitate Ekintzak Loiolako Plataforma Apostolikoan](#) dokumentuan sakondu daitezkeen 6 gakotan oinarrituta.

1. Loturak sortzea
2. Topaketarako eta sentsibilizaziorako espazioak sortzea
3. Eskubideak aitortzea eta aukerak sortzea
4. Malgutasuna, bereizketa eta behar berriei erantzutea
5. Sarean lan egitean
6. Etorkizunera begiratzea

Harrera komunitarioaren eredua: bizitzan bidaide.

SJM osatzen duten erakundeek [harrera komunitarioaren eredua](#) lagundutako pertsonak, talde profesionalak eta harrera-komunitatea barne hartzen ditu. Hiru eragile horien artean sortzen diren elkarreraginek errealitate berria eratzen dute. Gizarte abegikorrak eta abegi oneko kulturak gutxienez behar dituzten elementuak biltzen dituen espazioa da errealitate berri hori, elkarreraginen aurretik existitzen ez zena.

Eratzen ari den espazio berri horrek, hartutako pertsonak egiten dituzten prozesuei erantzuten die alde batetik, eta komunitate harreragileek egiten dituztenei bestetik, erakundeetako teknikarien birtartekaritzaren emaitza gisa. Prozesu horiek bat datoz gizabanakoek eta gizarteek parte-hartzearen eta herritarren artikulazioaren inguruan egiten dituzten prozesuekin, eta elkarreragin horiek alde batera utzita, prozesu horiek ez dira beti ez paraleloak ez ekitatiboak izaten.

Elkarrekintza hasteko, bi mugimendu egiten dituzte helmugan harrera kudeatzeaz arduratzen diren erakundeek. Alde batetik, beren profesionalen bitartez, harremanetan jartzen dira pertsona eta familia iritsi berriekin. Lehen mugimendu horrekin batera, normalean, profesionalak harremanetan jartzen dira hartutako pertsonak edo familiak kokatuko diren inguruneko pertsonekin eta taldeekin. Pertsonak hartzea eta harrera-guneak sortzea izango litzateke elkarreragin bikoitz horren helburua, eta harreraren ernamuina da, abegi onaren baliabideak aktibatuz. Abegi on hori kode kulturalen bidez neurtzen da, eta kode horiek trukatzuz ezagutarazten eta aberasten da.

Eguneroko komunitate-eremuen dinamizazioa bultzatzen eta eragiten du ernamuin horrek, haiek baitira benetako gizarteratze-dinamikak sortzen dituztenak, pertsona horiek beren eskubideak baliatzeko eta inplikaturako pertsona guztiek bizikidetzaren eraikuntzan parte hartzeko aukera izan dezaten. Hortik aurrera, herritarrek berek sortzen dituzte harrera eta gizarteratzea harreman horizontalen bidez, loturak sortu eta indartuta.





04. Historiak ikusteko proposamen metodologikoa

Dinamizatzeko modua berdina izango da, baina jarduera egiteko dagoen denborari egokituta. Kontakizunak bi orduko saio bakarrean ikus daitezke, edo, bestela, kontakizun bat edo bi aukeratu, eta 45-60 minutuko saioetan landu. Kontakizun bakoitzak fitxa bat du. Fitxa horretan, historia bakoitzari buruzko aipamen bat dago, hausnarketarako galderak proposatzen dira, solasaldirako edo bateratze-lanerako denborak adierazten dira, eta parte-hartzea dinamizatzeko edo hausnarketan sakontzeko lagungarri izan daitekeen informazioa ere aurki daiteke.

Giza Eskubideen defentsa izanik oinarri, abegikortasunaren kultura eraikitzearen alde eta emakumeen gaitasunak eta indarguneak aitortzearen alde egin nahi dugunez, birbiktimizazioak saihestea gomendatzen dugu, gogoeta propositiboagoak eta mobilizatzaileragoak egin daitezen. Hona hemen metodologiaren laburpena:

1. **Saioa prestatzea:** ikus-entzunezko edo idatzizko historiak ezagutzea, eta zein historia landu nahi diren identifikatzea, betiere lortu nahi diren helburuen eta dagoen denboraren arabera. **Materiaia prestatzea:** fitxak-galderak, bideoak deskargatzea seguruagoa da, baina wifi sare ona baldin baduzu, online ikus ditzakezu.

2. **Espazioa prestatzea:** aulkiak, pantaila, ordenagailua, interneteko konexioa, argiak, atzeko musika.

3. **Jardueraren testuingurua eta helburuak** aurkeztea.

4. Ikusi edo irakurriko den lehen testigantza aurkeztea.

5. Testigantza amaitzean, **denboratxo bat uztea, isiltasunean edo atzeko musikarekin, gogoeta pertsonala egiteko** fitxa-galderen bidez.

6. Ikusi edo irakurriko den bigarren testigantza aurkeztea.

7. Testigantza amaitzean, denboratxo bat uztea, isiltasunean edo atzeko musikarekin, gogoeta pertsonala egiteko fitxa-galderen bidez.

8. **Hitz egiteko txanda dinamizatzea:** Haien testigantzak entzun ondoren, zer esango zenieke emakume horiei? Zer eskatzen digute guri, gizarte garen aldetik? Zer egin dezakegu?

9. Amaiera: **eskerrak ematea, fitxak-galderak jasotzea eta gainerako testigantzak QRaren bidez ikusi edo irakurtzeko** eta zabaltzen laguntzeko gonbidapena egitea.

Bost testigantzak aurkeztu nahi izanez gero, bi multzotan egitea gomendatzen dugu, egokien iritzitako hurrenkeran antolatuta lekukotzak; era berean, hitz egiteko bi txanda zabaltzea komeni da; metodologiari jarraitzea, testigantza bakoitzaren ondoren minutu batzuk utzita gogoeta pertsonalerako eta proposatutako fitxa-galderei edo egokitutako jotzen diren beste galdera batzuei erantzuteko. Adibidez:

BIZITZA BERRERAIKITZEKO AHOTSAK

1. testigantza: AZHAAR + 2 min gogoeta pertsonala fitxak-galderak

2. testigantza: OLENA + 2 min gogoeta pertsonala fitxak-galderak

3. testigantza: AMAL + 2 min gogoeta pertsonala fitxak-galderak

—10 min solasaldia edo bateratze-lana—


4. testigantza: SARAH + 2 min gogoeta pertsonala fitxak-galderak

5. testigantza: AMIRA + 2 min gogoeta pertsonala fitxak-galderak

—10 min solasaldia edo bateratze-lana—

Amaiera: eskerrak ematea, fitxak jasotzea eta Bizitza berre-raikitze ahotsak proiektuaren QRa.

Jarraian, lekukotza bakoitzerako fitxa bat aurkezten da, aipamen batekin, hausnarketarako, dinamikarako eta denboretarako iradokitako galderekin eta taldean gogoeta egiteko informazio lagungarriarekin. Gidaren amaierako eranskinean fitxak-galderak daude, inprimatzeko prest.



AZHAAR

BAKEA DA GUZTIAREN OINARRIA

Ikus-entzunezkoaren iraupena: 4'03"

<http://fundacionellacuria.org/promotion/voces/>

Azhaarrek bere familia, bere lurra, bere kultura eta bere hizkuntza utzi behar izan zituen atzean, eta bereizketa horrek eragindako migrazio-doluaren prozesuak agertuko zaizkigu kontakizun honetan, eta, berak bezala, "hasiera berrietan" jende askok jasaten dituen estres-egoerak ere bai. Azharren hitzetan, "berriro oinez ibiltzen ikastea bezala" da. Eta ibilkera berri horretarako, informazio egokia jasotzea eta bakean bizi ahal izatea oso garrantzitsuak direla nabarmentzen du, bai bere gaitasun guztiak garatzeko, bai bizitzaren hainbat alderditan erabakiak hartzeko.

Zer esan nahi du zuretzat bakean bizi ahal izateak?

Zerk eragiten dizu beldurra?

Nola arindu Azhaarren eta bera bezalako pertsonen beldur hori?

Dinamika:

Giro egokia sortzea eta edukiak aurkeztea 10-15 min + Azhaarren bideoa ikustea - 4' 03" edo kontakizuna irakurtzea 5 min + 2 min galderei erantzuteko + 15 min solasaldirako edo bateratze-lanerako.

Bi testigantza ikusi edo irakurritz gero, kontakizun bakoitza ikusi/irakurri eta fitxako galderei erantzun ondoren zabalduko da hitz egiteko txanda. Bideoak ikusi beharrean testigantzak irakurtzea aukeratuz gero, 5 minutu inguru utzi behar dira kontakizun bakoitza irakurtzeko, eta metodologia berari jarraitu.

Jardueraren denbora: kontakizun 1 - 35 min, 2 kontakizun - 50 min, 3 kontakizun - 1 ordu, 5 kontakizun - 1.5 ordu

Material lagungarria: Kontakizunak eta bideoak, boligrafoak, Galderen fitxa (ikus eranskina)

Informazio lagungarria:

Bake-eskubidea Giza Eskubideen hirugarren belaunaldiko eskubideetako bat da. Gerrarik eza ez ezik, partaidetza, elkarbizketa, inklusioa, lankidetzat eta gatazkak gainditzeko sustatzen dituzten prozesu positiboak abian jartzea ere bada bakea.

Bakerako hezkuntza funtsezkoa da gizarte baketsuagoak, bidezkoagoak eta jasangarriagoak eraikitzeko. Egun, klima-aldaketa okerrera egiten ari da, demokrazian atzeraka goaz, desparekotasunak iraunkorrrak dira, diskriminazioa areagotzen ari da, eta gorrotoa, indarkeria eta gatazkak sustatzen dira; geure mundu honetan, arazo horiei aurre egiteko tresna izan daiteke hezkuntza, etorkizunean sor ez daitezen, eta, era berean, epe luzeko inbertsio bat ere bada hezkuntza, errendimendu gero eta handiagoak izanik baldin eta modu eraginkorrean taxutzen eta aplikatzen bada.

Harrera egiten duen gizarte bat eraikitzea da, halaber, pertsonak ekitatiboki hartzen dituen gizarte bat eraikitzea, neurriak hartuta pertsona, familia, kolektibo, herri eta komunitateen desabantaila sozialak eta oztopoak desagerrarazteko.

Ebaluazio gisa: Erantzundako galderen fitxak jasotzea eta proposatutako helburuak lortu ote diren baloratzea. Publikoaren/taldearen hitza jasotzea eta dinamizatzea, jarduera ixteko. Beste historiak ezagutzeko aukera ematea:





OLENA EZ AHAZTU GURE GERRA

<http://fundacionellacuria.org/promotion/voces/>

Ikus-entzunezkoaren iraupena: 6'15"

Bere kontakizunean, Olenak axolagabekeria eta ahanzturan ez erortzeko deia egiten du. "Ez ahaztu gure gerra" eskaera hori 2024. urtean mundu osoan aktibo zeuden 56 gerratar edo gehiagotara zabal daiteke. Gerra horietako askoren berririk ez zaigu iritsi ere egiten. Bakearen alde eta errefuxiatu nahiz migratzaileen eskubideen alde aktiboak diren herritarrak eta herrien arteko elkartasuna funtsezkoak dira axolagabekeriaren aurrean, bidegabekeriari bidea zabaltzen dion aldetik. Olenak, halaber, helmugako gizartean jaso duen harrera eta laguntza nabarmendu ditu, eta Ukrainan dituen senideentzat sostengu emozional eta psikologikoa izaten jarraitzea zein garrantzitsua den ere aipatzen du. Gizarte garen aldetik, gure ekarpena izan daiteke iristen direnei harrera eta laguntza ematea, pertsona horiek beren senideen sostengu baitira gerra testuinguruetan edo indarkeriako eta/edo larrialdi klimatikoko beste egoera batzuetan.

Zer egin elkartasuna zabaltzeko eta axolagabekeria eta ahanzturan ez erortzeko?

Gerrei dagokienez, nola eragiten dizute?

Dinamika:

Giro egokia sortzea eta edukiak aurkeztea 10-15 min + Azhaarren bideoa ikustea - 4' 03" edo kontakizuna irakurtzea 5 min + 2 min galderei erantzuteko + 15 min solasaldirako edo bateratze-lanerako.

Bi testigantza ikusi edo irakurri gero, kontakizun bakoitza ikusi/irakurri eta fitxako galderei erantzun ondoren zabalduko da hitz egiteko txanda. Bideoak ikusi beharrean testigantzak irakurtzea aukeratuz gero, 5 minutu inguru utzi behar dira kontakizun bakoitza irakurtzeko, eta metodologia berari jarraitu.

Jardueraren denbora: kontakizun 1 - 35 min, 2 kontakizun - 50 min, 3 kontakizun - 1 ordu, 5 kontakizun - 1.5 ordu


Material lagungarria: Kontakizunak eta bideoak, boligrafoak, Galderen fitxa (ikus eranskina)

Informazio lagungarria:

2025eko otsailaren 24an hiru urte bete ziren Ukrainako gatazka armatua hasi zenetik. 6 milioi ukrainarrek baino gehiagok ihes egin behar izan zuten herrialdetik, eta ehunka mila lagunek babesa aurkitu dute Europako hainbat lekutan: 211.325 ukrainarrek Espainian. Lumen IX "Beste harrera bat posible da" txostenean, Europak "harrera" emanez erantzuteko duen gaitasunari buruzko gogoeta egiten du. SJMk, Ukrainako desplazatuei aldi baterako babesa emateari dagokionez. Espainiako gobernuak baliabide egokiak eskaini zituen erantzun humanitarioa emateko, burokrazia arindu zuen eta, gainera, gizarte zibilaren harrera ona izan zen. Erantzun humanitarioa emateko gaitasun horren aurrean, galdera garrantzitsuak sortzen dira, beste leku batzuetako milaka pertsonak ez dutelako antzeko erantzunik jasotzen antzeko egoeran egon arren. Bizitza salbatzeko ihes egin eta Espainiara asilo-eske iristen diren beste pertsona batzuk eta beste familia batzuk itsasoak eta hesiak topatzen dituzte hegoaldeko mugan, *mugako kontrolen eraginkortasunaren izenean Zuzenbidea eta giza eskubideak ahaztuta geratzen direla*. Egoerak baloratzeko bi jarrera horien aurrean, eta Olenaren testigantzaaren ildoari jarraikiz, herrien artean egon daitekeen elkartasun-gaitasunari buruz gogoeta egin beharrean gaude, elkartasun hori nola zabaltzea ikusteko. Olenak Ukrainako gerra ez ahazteko egindako eskaeraren aurrean, gerrek nola eragiten diguten eta errealitateari nola aurre egin diezaiogegun hausnartu daiteke, betiere enpatiatik eta abegikortasunetik, gerra jasaten ari direnen minarekiko axolagabekeria, ahanzturan edo deshumanizazioan ez erortzeko.

Ebaluazio gisa: Erantzundako galderen fitxak jasotzea eta proposatutako helburuak lortu ote diren baloratzeko. Publikoaren/taldearen hitza jasotzea eta dinamizatzeko, jarduera ixteko. Beste historiak ezagutzeko aukera ematea:





AMAL AURRERA EGITEN LAGUN DIEZAGUTELA

<http://fundacionellacuria.org/promotion/voces/>

Ikus-entzunezkoaren iraupena: 7'15"

Amalen kasuan, Libanon urtez urte bizi izandako zailtasunak eta arrazakeria nabarmentzen dira; azkenean, ACNUR erakundeak Espainiako Gobernuarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera antolatutako birkokapen-programan sartu ahal izan zuen, babesletza komunitarioko programaren bitartez. Programa horretan herritarrek inplikatzeko dira, abegikortasunaren bitartez eta Amalen familiari laguntza emanda. Amalek, mundu osoko emakume askok bezalaxe, ez du ikasteko aukerarik izan eta, errefuxiatuen kanpamenduetan, seme-alabek ere ez zuten eskubide hori ziurtatuta. Amalentzat oso garrantzitsua da seme-alabek orain eskolara joateko aukera izatea eta, aldi berean, bera eta bere familia bizi diren auzoko herritarrek ongi hartu dutela eta babesa ematen diotela sentitzen du.

Ba al dago errefuxiatuak zure inguruan? Zerk bereizten ditu?

Zerk bultzatuko zintuzke errefuxiatuengana hurbiltzera?

Dinamika:

Giro egokia sortzea eta edukiak aurkeztea 10-15 min + Azhaarren bideoa ikustea - 4' 03" edo kontakizuna irakurtzea 5 min + 2 min galderei erantzuteko + 15 min solasaldirako edo bateratze-lanerako.

Bi testigantza ikusi edo irakurriz gero, kontakizun bakoitza ikusi/irakurri eta fitxako galderei erantzun ondoren zabalduko da hitz egiteko txanda. Bideoak ikusi beharrean testigantzak irakurtzea aukeratuz gero, 5 minutu inguru utzi behar dira kontakizun bakoitza irakurtzeko, eta metodologia berari jarraitu.

Jardueraren denbora: kontakizun 1 - 35 min, 2 kontakizun - 50 min, 3 kontakizun - 1 ordu, 5 kontakizun - 1.5 ordu

Material lagungarria: Kontakizunak eta bideoak, boligrafoak, Galderen fitxa (ikus eranskina)

Informazio lagungarria:


Birkokapena da errefuxiatuak harrera-herrialde batetik beste Estatu batera eramatea, Estatu horrek errefuxiatuak hartzea eta, azken batean, bizileku-baimen iraunkorra ematea erabaki duelako. Testuinguru horretan, errefuxiatuak hirugarren herrialde batean birkokatzeko prozesuan laguntzen du ACNURek.

Babesletza Komunitarioa da herritarrek, GKEak edo beste talde batzuk beren kabuz eta zuzenean inplikatzeko errefuxiatuak hartzeko eta gizarteratzeko prozesuetan. Hartara, herritarrek elkartu egiten dira, eta aldi jakin batean bizitzeko leku bat eta laguntza ekonomiko, emozional eta soziala eskaintzeko konpromisoa hartzen dute.

SJM osatzen duten erakundeek **harrera komunitarioaren ereduak** lagundutako pertsonak, talde profesionalak eta harrera-komunitatea barne hartzen ditu. Gure gizarte-ekintzaren ezaugarri bereizgarria da alderdi komunitarioa, eta abegi onaren kultura eraikitzea du helburu, aniztasunari erreparatuz bere ikuspegi zabalenetik, eta pertsona guztiak errespetatzeko eta aintzat hartzeko oinarritzeko printzipioa beteta betiere. Hala, komunitatea errotuta dagoen lurraldetik egiten da harrera-ekintza, eta, pertsona migratuekin eta errefuxiatuekin batera, ekintza eraldatzailea ahalbidetzen du, lotutako pertsona guztiei eragiten diena.

Ebaluazio gisa: Erantzundako galderen fitxak jasotzea eta proposatutako helburuak lortu ote diren baloratzea. Publikoaren/taldearen hitza jasotzea eta dinamizatzea, jarduera ixteko. Beste historiak ezagutzeko aukera ematea:





SARAH

GIZARTE HONETATIK ESPERO DUDANA ALDAKETA BAT

<http://fundacionellacuria.org/promotion/voces/>

Ikus-entzunezkoaren iraupena 8'20"

Sarahk gogoeta egitera gonbidatzen gaitu desberdintasunari buruz, migrazioen arrazoietakoa bat den aldetik, eta giza eskubideen urraketa larriak eragiten dituen nazioarteko mugen kontrolaren kudeaketari buruz ere. Era berean, herritarren erantzun solidarioen premiari buruz gogoeta egiteko balioko digu, baita berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruz ere, jasan dituen arrazakeriaren eta islamofobiaren aurrean.

**Zer datorkizu gogora
"heriotzaren txalupak"
entzutean?**

**Zergatik bidaiatu behar
dute Sarahk eta beste
pertsona askok horrelako
txalupetan Europara
etortzeko?**

Dinamika:

Giro egokia sortzea eta edukiak aurkeztea 10-15 min + **Azhaarren bideoa** ikustea - 4' 03" edo **kontakizuna** irakurtzea 5 min + 2 min galderei erantzuteko + 15 min solasaldirako edo bateratze-lanerako.

Bi testigantza ikusi edo irakurri gero, **kontakizun bakoitza** ikusi/irakurri eta fitxako galderei erantzun ondoren zabalduko da hitz egiteko txanda. Bideoak ikusi beharrean testigantzak irakurtzea aukeratuz gero, 5 minutu inguru utzi behar dira **kontakizun bakoitza** irakurtzeko, eta metodologia berari jarraitu.

Jardueraren denbora: kontakizun 1 - 35 min, 2 kontakizun - 50 min, 3 kontakizun - 1 ordu, 5 kontakizun - 1.5 ordu

Material lagungarria: Kontakizunak eta bideoak, boligrafoak, Galderen fitxa (ikus eranskina)

Informazio lagungarria:


Eremu hartan pairatzen ari diren krisialdi ekonomiko, politiko eta ingurumenekoaren aurrean, beste aljeriar batzuk bezalaxe, etorkizuneko aukerak herrialdetik kanpo bilatzen hasi zen Sarah. Arazoa da aljeriar gehienek ezin dituztela bete bisa bat lortzeko edo migrazio-bide arauetarako sarbidea izateko baldintzak, eta hori ezinbestekoa da modu seguruan bidaiatu ahal izateko. Bestalde, Europa gotorlekuak, bizitzak salbatu beharrean, alternatibarik ezean bizitza arriskuan jarrita migratzen dutenen giza eskubideak urratzen ditu.

Giza Eskubideen Nazioarteko Adierazpenaren 13. artikuluan joan eta etorri aske ibiltzeko eskubidea jasotzen den arren, Estatuak mugak kontrolatzeko eta migrazioa kudeatzeko politikak ezartzen dituzte. Politika horiek pertsona guztien giza eskubideak errespetatu beharko lituzkete, pertsonaren migrazio-egoera edozein izanik ere. Baina errealitatea da, 2014tik 2024ra bitarte, IOM (Migrazioetarako Nazioarteko Erakundearen kalkuluen arabera, Mediterraneoan 31.766 lagun, gutxienez, hil edo desagertu direla. Errealitate horri Ceuta eta Melillako hesiak eta itzulketa masiboak gehitu behar zaizkio, giza eskubideak urratzen dituztenez.

Sarah ere egon zen hiltzeko arriskuan, beste pertsona asko bezala; zorionez, onik iristea lortu zuen, eta gure gizartearen parte dira orain, Espainiara bizirik iristeko zortea duten pertsona guztiak bezala. Sarah proaktiboa izan da bere migrazio-prozesuan: laguntza bilatu du, hizkuntza ikasi du eta pertsonekin, erakunde sozialekin eta harrera-komunitatearekin lotura izan du. Sendotasunez eta esker onez mintzo da, eta gogoeta egin dezagun nahi du, diskriminazioari eta arrazakeriari aurre egite aldera.

Ebaluazio gisa: Erantzundako galderen fitxak jasotzea eta proposatutako helburuak lortu ote diren baloratzea. Publikoaren/taldearen hitza jasotzea eta dinamizatzea, jarduera ixteko. Beste historiak ezagutzeko aukera ematea:





AMIRA

SEGURU SENTITUKO ZAREN HERRIALDE BATERA JOAN

<http://fundacionellacuria.org/promotion/voces/>

Ikus-entzunezkoaren iraupena: 7'15"

Amiraren testigantza sendotasunaren eta abegikortasunaren adierazgarri da. Gainerako senideak atzean utzi behar izan zituen arren, seme-alaben bizitza salbatzeagatik gerratik ihes egitean bizi izandako esperientzia traumatikoa ezagutzeko aukera emango digu. Libanon urtez urte bizi izandako zailtasunak eta arrazakeria nabarmentzen ditu; azkenean, ACNUR erakundeak Espainiako Gobernuarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera antolatutako birkokapen-programan sartu ahal izan zuen, babesletza komunitarioko programaren bitartez. Programa horretan herritarrak inplikatzeko dira, abegikortasunaren bitartez eta Amalen familiari laguntza emanda. Amirak balioa ematen dio seguru eta ongi hartua sentitzen den herrialde batean bizitzeari. Eta Espainiako Estatuari eskatzen dio Libanon dauden errefuxiatu ahalik eta gehien har ditzan.

Zerk sentiarazten gaitu
seguru eta maitatu?

Egin al dezakegu zerbait
gure lurretara iritsi berri diren
pertsonek horrela senti daitezen?

Dinamika:

Giro egokia sortzea eta edukiak aurkeztea 10-15 min + Azhaarren bideoa ikustea - 4' 03" edo kontakizuna irakurtzea 5 min + 2 min galderei erantzuteko + 15 min solasaldirako edo bateratze-lanerako.

Bi testigantza ikusi edo irakurritik gero, kontakizun bakoitza ikusi/irakurri eta fitxako galderei erantzun ondoren zabalduko da hitz egiteko txanda. Bideoak ikusi beharrean testigantzak irakurtzea aukeratuz gero, 5 minutu inguru utzi behar dira kontakizun bakoitza irakurtzeko, eta metodologia berari jarraitu.

Jardueraren denbora: kontakizun 1 - 35 min, 2 kontakizun - 50 min, 3 kontakizun - 1 ordu, 5 kontakizun - 1.5 ordu

Material lagungarria: Kontakizunak eta bideoak, boligrafoak, Galderen fitxa (ikus eranskina)

Informazio lagungarria:

Birkokapena da errefuxiatuak harrera-herrialde batetik beste Estatu batera eramatea, Estatu horrek errefuxiatuak hartzea eta, azken batean, bizileku-baimen iraunkorra ematea erabaki duelako. Testuinguru horretan, errefuxiatuak hirugarren herrialde batean birkokatzeko prozesuan laguntzen du ACNURek.

Babesletza Komunitarioa da herritarrak, GKEak edo beste talde batzuk beren kabuz eta zuzenean inplikatzeko errefuxiatuak hartzeko eta gizarteratzeko prozesuetan. Hartara, herritarrak elkartu egiten dira, eta aldi jakin batean bizitzeko leku bat eta laguntza ekonomiko, emozional eta soziala eskaintzeko konpromisoa hartzen dute.

SJM osatzen duten erakundeek harrera komunitarioaren ereduak lagundutako pertsonak, talde profesionalak eta harrera-komunitatea barne hartzen ditu. Gure gizarte-ekintzaren ezaugarri bereizgarria da alderdi komunitarioa, eta abegi onaren kultura eraikitzea du helburu, aniztasunari erreparatuz bere ikuspegi zabalenetik, eta pertsona guztiak errespetatzeko eta aintzat hartzeko oinarritzko printzipioa beteta betiere. Hala, komunitatea errotuta dagoen lurraldetik egiten da harrera-ekintza, eta, pertsona migratuekin eta errefuxiatuekin batera, ekintza eraldatzailea ahalbidetzen du, lotutako pertsona guztiei eragiten diena.

Ebaluazio gisa: Erantzundako galderen fitxak jasotzea eta proposatutako helburuak lortu ote diren baloratzea. Publikoaren/taldearen hitza jasotzea eta dinamizatzea, jarduera ixteko. Beste historiak ezagutzeko aukera ematea:



BIZITZA BERRERAKITZEKO AHOTSAK

ERANSKINA

**Galderen
fitxa**



Unitate didaktikoa

BIZITZA
BERREBAKITZEKO
AHOTSAK

AZHAAR

Zer esan nahi du zuretzat bakean bizi ahal izateak? Zerk eragiten
dizu beldurra? Nola arindu Azhaarren eta bera bezalako pertsonen
beldur hori?



BIZITZA
BERREBAKITZEKO
AHOTSAK

AZHAAR

Zer esan nahi du zuretzat bakean bizi ahal izateak? Zerk eragiten
dizu beldurra? Nola arindu Azhaarren eta bera bezalako pertsonen
beldur hori?



BIZITZA
BERREBAKITZEKO
AHOTSAK

AZHAAR

Zer esan nahi du zuretzat bakean bizi ahal izateak? Zerk eragiten
dizu beldurra? Nola arindu Azhaarren eta bera bezalako pertsonen
beldur hori?



BIZITZA
BERREBAKITZEKO
AHOTSAK

AZHAAR

Zer esan nahi du zuretzat bakean bizi ahal izateak? Zerk eragiten
dizu beldurra? Nola arindu Azhaarren eta bera bezalako pertsonen
beldur hori?



BIZITZA BERRERAKITZEKO AHOTSAK

BIZITZA
BERRERAKITZEKO
AHOTSAK

OLENA

Gerrei dagokienez, nola eragiten dizute?

Zer egin elkartasuna zabaltzeko eta axolagabekeria eta ahantzura ez erortzeko?





BIZITZA
BERRERAKITZEKO
AHOTSAK

OLENA

Gerrei dagokienez, nola eragiten dizute?

Zer egin elkartasuna zabaltzeko eta axolagabekeria eta ahantzura ez erortzeko?





BIZITZA
BERRERAKITZEKO
AHOTSAK

OLENA

Gerrei dagokienez, nola eragiten dizute?

Zer egin elkartasuna zabaltzeko eta axolagabekeria eta ahantzura ez erortzeko?






BIZITZA
BERRERAKITZEKO
AHOTSAK

OLENA

Gerrei dagokienez, nola eragiten dizute?

Zer egin elkartasuna zabaltzeko eta axolagabekeria eta ahantzura ez erortzeko?





Unitate didaktikoa

BIZITZA
BERREBAKITZEKO
AHOISAK

AMAL

Zure inguruan ba al daude errefuxiatuak? Zerk bereizten ditu? _____
Zerk eramango zintuzke haiengana hurbiltzera? _____

 **Bizkaia**
Regimendak
alboan

BIZITZA
BERREBAKITZEKO
AHOISAK

AMAL

Zure inguruan ba al daude errefuxiatuak? Zerk bereizten ditu? _____
Zerk eramango zintuzke haiengana hurbiltzera? _____

 **Bizkaia**
Regimendak
alboan

BIZITZA
BERREBAKITZEKO
AHOISAK

AMAL

Zure inguruan ba al daude errefuxiatuak? Zerk bereizten ditu? _____
Zerk eramango zintuzke haiengana hurbiltzera? _____

 **Bizkaia**
Regimendak
alboan

BIZITZA
BERREBAKITZEKO
AHOISAK

AMAL

Zure inguruan ba al daude errefuxiatuak? Zerk bereizten ditu? _____
Zerk eramango zintuzke haiengana hurbiltzera? _____

 **Bizkaia**
Regimendak
alboan

BIZITZA BERRERAKITZEKO AHOTSAK

BIZITZA
BERRERAKITZEKO
AHOTSAK

SARAH

Zer datorkizu gogora “heriotzaren txalupak” entzutean?
Zergatik bidaiatu behar dute Sarahk eta beste pertsona askok
horrelako txalupetan Europara etortzeko?



BIZITZA
BERRERAKITZEKO
AHOTSAK

SARAH

Zer datorkizu gogora “heriotzaren txalupak” entzutean?
Zergatik bidaiatu behar dute Sarahk eta beste pertsona askok
horrelako txalupetan Europara etortzeko?



BIZITZA
BERRERAKITZEKO
AHOTSAK

SARAH

Zer datorkizu gogora “heriotzaren txalupak” entzutean?
Zergatik bidaiatu behar dute Sarahk eta beste pertsona askok
horrelako txalupetan Europara etortzeko?



BIZITZA
BERRERAKITZEKO
AHOTSAK

SARAH

Zer datorkizu gogora “heriotzaren txalupak” entzutean?
Zergatik bidaiatu behar dute Sarahk eta beste pertsona askok
horrelako txalupetan Europara etortzeko?




Unitate didaktikoa

BIZITZA
BERBERAKITZEKO
AHOISAK

AMIRA

Zerk sentiarazten gaitu seguru eta maitatuak? Sortu ditzakegu
inguru segururik gure lurraldera iritsi berri diren pertsonentzat?



BIZITZA
BERBERAKITZEKO
AHOISAK

AMIRA


Zerk sentiarazten gaitu seguru eta maitatuak? Sortu ditzakegu
inguru segururik gure lurraldera iritsi berri diren pertsonentzat?



BIZITZA
BERBERAKITZEKO
AHOISAK

AMIRA


Zerk sentiarazten gaitu seguru eta maitatuak? Sortu ditzakegu
inguru segururik gure lurraldera iritsi berri diren pertsonentzat?



BIZITZA
BERBERAKITZEKO
AHOISAK

AMIRA

Zerk sentiarazten gaitu seguru eta maitatuak? Sortu ditzakegu
inguru segururik gure lurraldera iritsi berri diren pertsonentzat?





BIZITZA BERRERAIKITZEKO AHOTSAK



ELLACURIA
FUNDAZIOA
GIZARTE GUNEA
CENTRO SOCIAL

 **Bizkaia**
enplegua, gizarte-erantzukizuna eta
berdintasuna sustatzeko sare
departamentu de enplego,
kultzio sozial e gualtad



 **alboan**
ONG JESUITA FUNDAZIOA